

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (TMI), 2005eko 4. hiruhilekoa

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak %2,2 hazi ziren 2005eko laugarren hiruhilekoan

Datu horien arabera, 2005. urteko hazkunde nominal metatua %2,8koa izan zen.

EUSTATEk emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta nominalak %2,2an igo zituen 2005eko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean. Hazkunde nominal honek, prezioen igoeraren ondorioa kenduta, urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da, positiboa hori ere, %1,2koa, termino errealetan.

URTE ARTEKO HAZKUNDE-TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2003	IV	2,8	3,1	2,3
2004	I	1,5	1,2	2,1
	II	4,7	7,0	0,3
	III	5,7	7,2	3,1
	IV	5,4	7,7	1,0
2005	I	1,5	2,8	-1,1
	II	2,8	2,8	2,7
	III	1,7	2,9	-0,4
	IV	1,2	1,7	0,2

Iturria: EUSTAT

Betiko txikizkako merkataritzak (espezializatua) salmenta nominalak %1,5 igo zituen 2005eko laugarren hiruhilekoan, 2004ko denboraldi beraren aldean. Igoera nominal hori, bere azpisektore ezberdinen prezioen bilakaeraren ondorioz, %1,7ko urte arteko hazkunde tasa bihurtu da termino errealetan.

Azalera handi eta ertainetako txikizkako merkataritza (espezializatu gabea) %3,4 igo da aurtengo laugarren hiruhilekoan, termino nominaletan. Prezioen bilakaera kontuan hartuta, urte arteko tasa errealaren aldakuntza, 2004ko hiruhileko beraren aldean, %0,2an zenbatetsi da.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkundeko tasarik handiena elikaduraren sektoreari dagokio. %5,6ko hazkunde nominala izan du; termino errealetan, %1,7koa. Pertsonen ekipamenduak, alabaina, bilakaera zentzuzkoagoa

izan zuten: %2,2koa uneko eurotan eta %1,6koa euro finkotan. Bestelako kontsumo-ondasunen sektoreko produktuen salmenta %2,1 gehitu ziren termino nominaletan eta %4,4 termino errealetan. Etxeko ekipamenduko produktuen salmentek %-2,3 egin zuten behera termino nominaletan eta beherapen hori %-1,9raino igo zen termino errealetan. Azalera handi eta ertaineko atalean elikadura nagusi den azpisektoreek %3,5 gehitu zituzten urte arteko salmentak, gainerako produktuak nagusi diren azpisektoreek, aldiz, %3,0.

Lurralde historikoetan, 2005eko laugarren hiruhilekoan, txikizkako sektoreko salmenta nominaletan Araban izan zen hazkunderik handiena, %3,3ko urte arteko gehikuntzarekin. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %2,0 hazi ziren, eta espezializatu gabekoarenak, %6,0.

Gipuzkoak lurralde bilakaera txikiena izan zuen, %0,2 gehitu zen. Merkataritza espezializatuko salmentetan %0,8ko gehikuntza izan zuen, eta %-0,8ko beherapena espezializatu gabeko sektorean.

Bizkaiak lurralde bilakaera ertaina izan zuen txikizkako merkataritzako salmentetan: %3,0. %1,9ko hazkundera izan zen txikizkako merkataritza espezializatuaren salmentetan, eta %5,3koa azalera handi eta ertaineko salmentetan, betiere urte arteko aldakuntza nominaleko terminoetan.

Merkataritza sektorean enpleguaren hazkunde metatua, aurreko urteko batez bestekoaren aldean, %2,2 izan zen. Lurraldeka honelakoa izan zen: Bizkaia (%3,1), Gipuzkoa (%2,0) eta Araba (%-0,8). Gainera, txikizkako merkataritzako sektore honetako langile okupatuen kopurua, 2005eko laugarren hiruhilekoan, %2,7 igo zen 2005eko hirugarren hiruhilekoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidego osoko datuen arabera.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskaral/indice.asp